



ZARAUZKO UDALA



Gipuzkoako Ur Kontsorzioa  
Gipuzkoako Urak

**ZARAUZKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO URAK SA-REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ZELAI ONDO PLAZAN UR-HORNIDURA, SANEAMENDUA ETA EURI-UREN HODITERIA BERRITZEKO**

### **BILDU DIRA**

Alde batetik, XABIER TXURRUKA FERNANDEZ Zarauzko Udaleko alkatea, Zarauzko Udalaren izenean (helbidea: Zigordia kalea 13 Zarautz).

Beste aldetik, jauna, Gipuzkoako Urak SAren ordezkari gisa (helbidea: Portuetxe kalea 16 Donostia).

Bi aldeek legezko eta jarduteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta aurrekari hauek adierazten dituzte:

### **AURREKARIAK**

**LEHENA.-** ZARAUZKO UDALAK, 2019ko urtarrilaren 31ean, uraren ziklo integrala GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN bitartez kudeatzen jarraitzea erabaki zuen. Hitzarmen hartan, kudeaketa-agindua GIPUZKOAKO URAK SA-ri ematea adostu zuten bi alderdiek. Hitzarmen hori 2019ko otsailaren 14an sinatu zen.

**BIGARRENA.-** Akordio haren bitartez, GIPUZKOAKO URAK Sak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN sozietatea dena, konpromisoa hartu zuen Zarauzko udalerriko beheko sareetan 4.864.991 euro inbertitzeko (BEZa barne).

**HIRUGARRENA.-** GIPUZKOAKO URAK SAK adierazi du Zelai Ondo plazan ur-hornidura eta saneamendu-hoditeriak berritzeko asmoa duela, eta, horretarako, plana eta aurrekontua egin ditu. Zarauzko Udalak Gipuzkoako Urak SAri proposatu dio euri-uren sarea ere moldatu dadila, proiektu horren barruan eta aldi berean.

Horiek horrela, elkartutakoek, beren gain duten ordezkartzarekin, honako hau hitzartzen dute:

### **KLAUSULAK**

**LEHENA.-** Zelai Ondo plazako sareetan lanak bi erakundeen artean finantziatuko dira.



ZARAUZKO UDALA



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa  
Gipuzkoako Urak

**BIGARRENA.-** Obraren kontratazio-espeditente osoa, hasieratik bukaerara, GIPUZKOAK URAK SA sozietateak gauzatuko du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena onartzen duenak, xedatutakoaren arabera. Proiektu osoaren lizitazio-prezioa 139.494,26 eurokoa da (BEZa barne).

**HIRUGARRENA.-** GIPUZKOAKO URAK SA-k ur-horniduraren eta saneamendusarearen kostua ordainduko du, bere inbertsio-betebeharren barnean. Gainera obraren kontratazio-espeditente osoa gauzatuko du, hasieratik bukaera arte. Lan horien kostua, BEZa barne, 124.482,59 eurotan baloratu da (finantzaketa-partida: 92170004).

**LAUGARRENA.-** ZARAUZKO UDALAK, berriz, euri-uren sarea berritzeko kostua ordainduko du, hitzarmenaren aurrekarietan jasotakoaren arabera. Lan horien kostua, BEZa barne, 15.011,67 eurotan baloratu da (partida: 0403.721.01.160.00.2022 (8069)).

Edonola ere, Udalak egin beharreko azken ordainketa, kostuaren likidazioan oinarrituko da.

**BOSGARRENA.-** Obra honen zuzendaritza Gipuzkoako Urak SAK burutuko du, obra zuzendaria izendatuz. Segurtasun eta osasun arloko oinarritzko azterketa eta hondakinen kudeaketaren azterketa ere Gipuzkoako Urak SAK idatzi eta onartuko du.

**SEIGARRENA.-** Gipuzkoako Urak SAK eta Zarauzko Udalak jarraipen-batzorde bat sortuko dute, hitzarmenean adierazitako xedeak betetzen direla bermatzeko. Jarraipen-batzordea erakunde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute. Hauek izango dira haren zereginak:

- Hitzarmena betetzen dela zaintzea.
- Bi erakundeen arteko lotura izatea.
- Hitzarmena interpretatzerakoan edo hura gauzatzeko sor daitezkeen arazoak konpontzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Hitzarmen honek ez du ekarriko alderdi parte-hartzaileek beren eskumenei uko egitea edo horiek aldatzea. Esku hartzen duen alderdi bakoitzak hitzarmen honen arabera dagozkion konpromisoen erantzukizunak bakarrik hartuko ditu bere gain.

**ZORTZIGARRENA.-** Hitzarmen hau iraungi egingo da egindako lanen berme-epa bukatzen denean edo alderdi sinatzaileek hala adosten dutenean.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak ahalmena izango du zehatz-mehatz bete ditzan eskatzeko edo hitzarmena amaitutzat eman dadila eskatzeko. Hitzarmena indargabetzen bada, alderdiek adostuko dituzte indarrean dauden ekintzak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak.





ZARAUZKO UDALA

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ Y LA AGENCIA VASCA DEL AGUA PARA LA RENOVACIÓN DE LAS REDES DE ABASTECIMIENTO, SANEAMIENTO Y PLUVIALES DE ZELAI ONDO PLAZA**



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa  
Gipuzkoako UraK

**REUNIDOS**

Por un lado, XABIER TXURRUKA FERNANDEZ alcalde del Ayuntamiento de Zarautz, en representación del Ayuntamiento de Zarautz (con domicilio en Zigordia kalea 13 Zarautz).

Por otro, \_\_\_\_\_, como representante de GIPUZKOAKO URAK SA (con domicilio en Portuetxe kalea 16 Donostia).

Ambas partes se reconocen mutuamente capacidad jurídica y de obrar, y refieren a modo de antecedentes los siguientes

**ANTECEDENTES**

**PRIMERO.-** El Pleno del AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ el 31 de enero de 2019 acordó encomendar al CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA la gestión del ciclo integral del agua del municipio de Zarautz y aprobar un Convenio de Colaboración entre ambas Instituciones. Dicho Convenio fue suscrito el 14 de febrero de 2019.

**SEGUNDO.-** Mediante dicho Convenio, la sociedad GIPUZKOAKO URAK SA, perteneciente al CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA adquirió el compromiso de realizar una inversión de 4.864.991 euros (IVA incluido) en las redes de baja del municipio de Zarautz.

**TERCERO.-** GIPUZKOAKO URAK SA ha comunicado su intención de renovar las redes de abastecimiento y saneamiento de Zelai Ondo plaza, presentando para el ello el plano y el presupuesto. El Ayuntamiento de Zarautz, asimismo, ha propuesto a GIPUZKOAKO URAK SA que dentro de este proyecto y simultáneamente se acometa la adecuación de la red de pluviales.

En su virtud, las partes reunidas, en la representación que ostentan, firman el presente convenio que se registrará por las siguientes

**CLÁUSULAS**

**PRIMERO.-** Los trabajos en las redes de Zelai Ondo se financiarán entre ambas instituciones.

**SEGUNDO.-** GIPUZKOAKO URAK SA será el encargado de llevar a cabo el expediente de contratación, de principio a fin, conforme a lo dispuesto en Ley 9/2017,



## ZARAUZKO UDALA

de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. El precio de licitación total del proyecto es de 139.494,26 euros (IVA incluido)



Gipuzkoako Ur Kentsortziaz  
Gipuzkoako Urak

**TERCERO.-** GIPUZKOAKO URAK SA asumirá el coste de la red de abastecimiento y saneamiento, dentro de sus obligaciones de inversión. Además, ejecutará el expediente completo de contratación de la obra desde su inicio hasta su finalización. El coste de dichos trabajos se ha valorado en 124.482,59 euros, IVA incluido (partida de financiación: 92170004).

**CUARTO.-** El Ayuntamiento de Zarautz, por su parte, pagará el coste de renovación de la red de pluviales, conforme a lo recogido en los antecedentes del Convenio. El coste de dichos trabajos se ha valorado en 15.011,67 euros, IVA incluido (partida: 0403.721.01.160.0.2002 (8069)).

En cualquier caso, el último pago a realizar por el Ayuntamiento se basará en la liquidación del coste.

**QUINTO.-** Gipuzkoako Urak SA realizará la dirección de esta obra, con el nombramiento de un director de obra. El estudio básico de seguridad y salud y el estudio de gestión de residuos se redactarán y aprobarán por Gipuzkoako Urak SA.

**SEXTO.-** Gipuzkoako Urak SA y el Ayuntamiento de Zarautz crearán una comisión de seguimiento para garantizar el cumplimiento de los fines señalados en el convenio. La Comisión de Seguimiento estará compuesta por dos representantes de cada institución. Estas serán sus funciones:

- Vigilancia del cumplimiento del convenio.
- Punto de contacto entre las dos instituciones.
- Resolver los problemas de interpretación o de ejecución que pueda plantear el convenio.

**SÉPTIMO.-** El presente convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes. Cada una de las partes intervinientes asumirá únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que en virtud del presente convenio le correspondan.

**OCTAVO.-** El presente convenio se extinguirá por expiración del plazo de garantía de los trabajos realizados o por acuerdo de las partes firmantes.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes acordarán las condiciones para la finalización de las acciones vigentes y para su pago.

También será causa de resolución del convenio cualquiera otra prevista en el mismo o en cualquier otra ley.

Y en prueba de conformidad con lo expuesto, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.



ZARAUZKO UDALA



Gipuzkoako Ur Kentsortzina  
Gipuzkoako UraK

En Zarautz, a 30 de junio del 2022

Xabier Txurruka Fernandez  
ZARAUZKO ALKATEA

GIPUZKOAKO URAK S.A.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe4b8b4e0-053c-4b5c-9049-108be2b396b7**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://ust.gipuzkoa.eus?De=07910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://ust.gipuzkoa.eus?De=07910>



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUaccbbd00-70cc-42f6-beed-64df29ec0d0c**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://ust.gipuzkoa.eus?De=07910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://ust.gipuzkoa.eus?De=07910>